

# Abarrak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ





## Begirada berri bat egunero

FOTOGRAFIA DIGITALAREN AROAN, argazki galeria eder askoak aurki ditzakegu Interneten. Flickr (www.flickr.com) bezalako ekimenek benetako artelanak biltzen dituzte, eta erakusleho aproposa dira kamerarekin atzemandako irudiak zintzilikatzeko. Flickr-en argazki ugari ditu bilduak Gonzalo Iza 27 urteko zumarragarrak, horietako hainbat www.unafotopordia.com (Argazki bat eguneko) bere blogetik arrantzatuak. 187.000 bisita baino gehiago izan dituen webgune hau 2011n zehar osatu du Izak, egunero foto bat igoaz. Bilduma erakargarria biribildu du, paisaiak, erretratuak, animaliak, jana –arau eta sekretu propioak ditu janari-argazkilaritzak–, eguneroan ikusitako detaileak eta inguruko txokoak dotorezia handiarekin irudikatuz.

Nabarmentzekoa da paisaia sorta, ikusgarriak batzuetan, bere soiltasunean ederrak bestetzuetan,

misteriotsuak, kolore indartsuz eta kontrastez ziprintuak, beheko argazkietan ikus daitekeenez. Perspektibarekin, enkoadraketarekin, objektibo motarekin, fokatze eta ez-fokatzearekin... nola jolasten duen ere nabaria da erretratuetan. Zailena, arrunta dirudien eguneroko begiradan foto interesgarriak harrapatzea, Zumarragoak baitio atzerrian, oporretara goazenean adibidez, dena iruditzen zaigula berri eta ezberdin, baina kontrakoa gertatzen dela etxean. Hala ere, denbora hartuz eta irudimena landuz, irudi originalak eta bereziak lortzeko urrutira joan beharrik ez dagoela erakutsi du berak.

Proiektuak ordenagailu pantailatik aretora egingo du jauzi, batutako 365 argazkiekin erakusketa antolatu baitute. Otsailaren 3tik aurrera, hamar egunez, ikusgai izango dira Zumarragako kulturetxean.



**AMETS BATEN  
OINORDEKO GARA**  
UNIVERSIDAD VASCA EUZKO IRAKASTOLA NAGUSIA

[www.ehu.es/ametsbatenoinderkogara](http://www.ehu.es/ametsbatenoinderkogara)

Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea

